

KOMUNIKAZIO-EREDUAK, HIZKUNTZA ETA EUSKAL TELEBISTAGINTZA

Tesiaren egilea: Bea Narbaiza Amillategi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila

Tesi-zuzendaria: Edorta Arana Arrieta

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi honen helburua da hausnarketa proposatzea, Euskal Herrian (baina batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan) azken hamarkadetan hainbat esparru geografikotako kanalen artean osatzen joan diren eredu komunikatiboen inguruan.

Ikerketaren lehenengo pasartean, lehenik aztertu da telebistaren zerbitzu publiko izaerak zein eragileri aitortzen dizkion eskumen arautzaileak; ondoren, zenbait administrazioak arau eran gorpuztu dituen neurrien edukiak eta betetze-maila analizatu dira.

Bigarren atalean, Euskal Herriko tokian tokiko telebistei buruzko ikerlan zehatza egin da, denboran zehar izandako garapena ere aintzat hartu delarik.

Ondorengo blokean, telebistari hizkuntzaren normalizazioan atxikitzen zaizkion funtzioak aztertu dira: kontuan hartu dira bai Hizkuntza Gutxitu Erregionalak (Regional Minority Languages edo RML), baita Immigrazioaren Hizkuntza Gutxituak (Inmigrant Minority Languages edo IML) ere. Helburu horrekin, hasieran, RMLn eta IMLn emititzen duten Europa mailako telebista kateen panoramaren errepaso bat egin da, eta, ondoren, batzuegan zein besteengan eragina duten alor batzuetan sakondu da.

Azkenik, egun sektorearen liberalizazioa ia erabatekoa dela kontuan hartuta, titulartasuna publikoa zein pribatua izanik, zerbitzu publiko izateko bokazioa duten telebisten etorkizuneko erronka batzuk seinatu dira. Horretarako, Foucaulten aholkuari jarraituz, diskurtso inperatiboetan erori gabe, adierazle taktikoak erabili dira (Foucault, 2006, *Seguridad, territorio, población.*). Izan ere, ziklo baten bukaeran gaude, 60ko hamarkadan zabalduak zikloa agortuta dago eta. Ikuspuntu teknologikotik, digitalizazioak, konbergentzia mediatikoak eta sare sozialen erabilera eta kontsumoak komunikazioaren paradigma aldatu dute eta norabide bakarreko edukien fluxua eteten doa. Bestalde, Euskal Herrian azken urteotan zabaldu den egoera politiko berria kontuan izanik, eta egungo Espainiako estatuaren egituraketaren krisiak markatutako eszenatokia ikusirik, badirudi une egokia dela

herri baten antolaketarako ezinbestekoa den mapa komunikatiboari begirako erronkak berrazalarazteko. Neoliberalismoak politikari lekua modu saihetsezin batean usurpatzen diola dirudien garaiotan, lerro hauetatik politikaren aldarrikapena egingo da: politika, ez soilik eztabaida teoriko moduan, ekintza zehatzekin lotutako jarduera moduan baizik.